



- Ez du dokumentuaren edukiaren aurka egin behar, eta bertan adierazitako irizpide eta jarraibideen arabera jokatu behar du.
- Kontuan izanik ordezkariari esleitutako funtzio eta erabakiek duten berebiziko garrantzia, saiatu behar da edozein motatako interes-gatazkak eraginik ez edukitzen, eta ziurtatu behar da hartzen diren erabakiak pazientearen aldekoak izango direla; horregatik, legeak zehazten du ordezkaria ez duela izan behar, ez dokumentuaren lekukoek, ez aldez aurreko borondateak aplikatu behar dituen mediku arduradunak, ez pertsona egilearen atentzio sanitarioa finantzatzen duten erakundeetako pertsonalak. Horrek guztiak ez ditu ordezkari izateko salbuesten, lotura afektiboagatik edo pazientearen familiarra izateagatik, bere interesei lehentasuna eman ahal dietenak.
- Aholkatzen da familiak jakitea ordezkaria zein izango den.
- Ordezkari bat baino gehiago aukeratuz gero, ezinbestekoa da beraien artean lehentasun hurrenkera bat ezartzea, eta bertan adierazi, zein den ordezkari titularra eta zein ordezkaria, azken hau titularrik ezean bakarrik egongo da.

11

7. AABen dokumentuen ereduak

AABen dokumentuen eredu batzuk existitzen dira, eta, gogoeta pertsonala egin ostean eta profesional sanitarioarekin elkarrizketatu ondoren, baliagarriak izan daitezke dokumentu pertsonalizatua egiten laguntzeko. Gida honekin batera doa eredu izan daitekeena, lehenago proposatutako beste eredu batzuetan oinarritua.

z e r a d i e r a z d a i t e k e A A B e n d o k u m e n t u a n ?